

EkoPresa

Inter de Melon

Ingurumena eta gizartea hobetzeko proiektu bat

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun baserritarrek ez dakite zer egin artilearekin. Lehen askoz gehiago saltzen zen artilea, baina gaur egun baserritarrek ez dakite zer egin artile horrekin eta askotan enpresa partikularrei ordaindu behar diete beraien artilea beste nonbaitera eramateko. EkoPresa proiektuak behar hori aprobetxatzen du presa ekologikoak sortzeko. Artileari buruz egindako ikerketa batek dio (erabilitako ikerketa: <https://repositorio.uisek.edu.ec/handle/123456789/2140>) artileak ura garbitzeko eta filtratzeko hainbat ezaugarri berezi dituela eta gaur egun ura garbitzeko hainbat presa proiektu sortu dira. Hori dela eta, gure presetako filtroak egiteko balio dute. Presa hauen funtzionamendua maximizatzeko, erabilitako pneumatiko zaharrak lortuko ditugu dohainik, beste hainbat material organiko artilearen filtroak sendotzeko eta beste material artifizial batzuk presen epe-luzerako erabilera ziurtatzeko. Gure helburua azpiegitura hidraulikoak eraikitzea eta ingurumena hobetzen saiatzea da, ohiko presen ingurumen-inpaktu handia, kostu altuak eta iraungitasun eskasa gainditzeko, ekonomia zirkularra eta tokiko baliabideak bultzatuz.

Gure proiektuek material birziklatua erabiltzen dute (pneumatikoak, artilea), diseinu modular eta eskalagarria eskaintzen dute, eta komunitatearen parte-hartzea sustatzen dute. Merkatu-segmentu nagusiak udalerriak, nekazaritza-kooperatibak, GKEak eta gobernuko erakundeak dira, zeinek ur-biltegiak, higadura-kontrola eta klima-alaketara egokitzeko proiektuak eskatzen dituzten.